



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



# Zuk jakitea nahi dut...

Nire bizitzaren zaintza  
modu partekatuan  
planifikatzeko gida



Erraz irakurtzeko  
testuak



Gizarte Esku-hartzeko Etika Batzordea  
Comité de Ética en Intervención Social

**Lege gordailua:** D-152-2023

**Lehen edizioa:** 2023ko otsaila

**Koordinazioa:** Gipuzkoako Gizartean Esku-hartzeko Etika Batzordea GEHEB

**Irakurketa Errazera egokitzapena:** Lina Ugarte Sauret eta Nerea Aizpurua Iraola  
(Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)

**Diseinua eta ilustrazioak:** Estela Hernández Blanco



Logo honek ziurtatzen du eskuartean dituzun materialak IFLAK (International Federation of Library Associations and Institutions) zehazturiko arauak betetzen dituela eta irakurketa zailtasunak dituzten pertsonentzat material egokia dela. Dokumentu hau berrikusi eta abalatu du Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Errazak.

**Piktogramen autoreta:** Sergio Palao.

**Jatorria:** ARASAAC (<http://catedu.es/arasaac/>).

**Lizentzia:** CC (BY-NC-SA)

# Aurkibidea

orrialdea

Ezagutu behar dituzun hitz garrantzitsuak .....	4
Zer da gida hau? .....	5
Zertarako balio du? .....	6
Norentzat da gida hau? .....	8
Dokumentua bete baino lehen kontuan hartzeko gauzak .....	10
Nola bete dokumentua bakarrik .....	12
Nola bete dokumentua laguntzarekin .....	14
Non aurki dezakezu informazio gehiago .....	16
“Zuk jakitea nahi dut...” dokumentuaren eredia .....	17

## Ezagutu behar dituzun hitz garrantzitsuak

- **Sostenguak:** pertsona bati ondo egoten eta bizitza hobetzen laguntzen dizkioten gauzak, baliabideak eta pertsonak dira. Adibidez, tramiteak egiten laguntzen digun pertsona edo pertsona bati hobeto komunikatzen laguntzen dion gailu bat.
- **Autodeterminazioa:** gauzak gure kabuz egin ahal izatea eta guk geuk erabakitzea.
- **Sinesmena:** egia dela sinestea erabaki dugun ideia bat edo zerbait da. Pertsonok sinesmen desberdinak ditugu gure kulturagatik, erlijioagatik...
- **Zainketak:** gida honetan zainketak hitza zentzu zabalean erabiltzen da. Hemen nahi ditugun zainketak gure kabuz nahi duguna aukeratu eta egin ahal izateko eta autodeterminazioa izateko jaso nahi ditugun sostenguei dagozkie.
- **Duintasuna:** pertsona guztiok merezi dugun errespetua eta estimua da.
- **Eskela:** pertsona bat hiltzen denean egunkarian agertzen den testua da. Eskatu ohi dutenak dira senideak, lagunak...
- **Ohitura osasungarriak:** pertsona bati ondo egoten eta osasun fisiko eta mental ona izaten laguntzen dioten jarduerak, ohiturak dira. Baita beste pertsona batzuekiko harremanetan ere.
- **Erraustu:** zerbait hauts bihurtu arte erretzea da. Kasu honetan, pertsona baten gorputza hiltzen denean.
- **Heriotza-poliza:** pertsona bat hiltzen denean familiari laguntzeko aseguru da. Adibidez, beilatokiko eta hobiratze gastuak ordaintzen.
- **Balioak:** garrantzitsuak eta baliotsuak iruditzen zaizkigun ideiak eta pentsatzeko moduak dira. Hoberen iruditzen zaigun moduan bizitzen laguntzen digute.
- **Aurretiazko borondateak:** pertsona batek bere kabuz erabakiak hartzeko gai ez denean jaso nahi dituen osasun-zainketak idatzita dituen dokumentua da.

## Zer da gida hau?

Gida hau Gipuzkoako Gizartean Esku-hartzeko Etika Batzordeak egin du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuaren laguntzarekin.

Bizitzarako eta praktikan jartzeko garrantzitsuak diren erabakiak hartzeko edonorentzat balio du.

Baita ere beste pertsonen beharra duten pertsonentzako balio du. Adibidez, pertsonak laguntza jasotzen duenean hala nola Etxez etxeko laguntza zerbitzutik, Eguneko arreta zerbitzu batean edo egoitza batean.

Gida honek lagundu nahi die beste pertsona batzuekin batera bizitza-plana egiten, hau da, modu partekatuan. Horretarako, dokumentu bat idaztea proposatzen zaie, plangintza hori antolatzeke eta nolakoa izatea nahi duen adierazteko.

Dokumentu honek "Zuk jakitea nahi dut..." du izena. Gida honetan dokumentu hori idatzi ahal izateko eredu bat dago adibide gisa.

## Zertarako balio du?

Dokumentu honek balio du pertsona batek eguneroko bizitzan hartzen dituen erabakiak eta aukerak errazteko tresna gisa.

Baita bizitza-planean edo erabaki horiek hartzeko moduan aldaketak gertatzen diren uneetan ere.

Dokumentu honek jarraibide errazak eskaintzen dizkio bai pertsonari, bai familiari, lagunei eta laguntzen dioten profesionali zer nahi duen jakiteko eta adierazteko.

Batzuetan adierazteko edo tratatzeko zailak diren gaiei buruz hitz egiteko ere balio du. Horrela, ez dira hainbeste gaizki-ulertze gertatuko eta ez genituzke pertsonaren nahiak betetzen ez dituzten erabakiak hartuko.

Gainera, modu honetan pertsonak bere nahiak eta beharrak ez dizkie hainbat pertsonari errepikatu behar behin eta berriz.

Oso garrantzitsua da pertsonaren balioak, nahiak eta premiak entzutea eta errespetatzea eta pertsonak berak erabakitzea bere bizitzari buruz. Besteek ez dute beragatik erabaki behar.

Familiaren, lagunaren eta profesionalen zeregina da entzutea, errespetatzea eta elkarrizketan aritzea. Beharrezkoa da pertsonak nahi eta behar duena jakitea behar diren sostenguak emateko.

Horrela, bizitza egokia eta betea biziko du, hau da, bizitza oso bat bere balioak, nahiak eta lehentasunak jarraitzen.

Kontuan hartu behar da, pertsonaren eta laguntzaileen arteko harremana berdintasuneko harremana izan behar dela.

Honela, eskaintzen da prozesuan parte hartzen duen eta pertsona erdian jartzen duen sostengua. Eta pertsonaren autonomia, duintasuna eta nortasuna ere errespetatzen dira, hau da, beste pertsona batzuek desberdin egiten gaituzten ezaugarriak.

Horregatik guztiagatik, hau dokumentu irekia da eta behar diren berrikuspen edo aldaketa guztiak egin daitezke. Horrela egokitu daiteke pertsonak une bakoitzean dituen premietara eta nahietara.

## Norentzat da gida hau?

Hemen ikus ditzakezu egoera desberdinetan dauden eta gida honek balio diezaiekeen 2 pertsonen adibideak.

Nolanahi ere, egoera desberdin batean egon zaitezke eta gida hau erabilgarria izan daiteke zuretzat ere. Izan ere, egoera eta pertsona mota asko daude eta gida honek guztientzat balio du.

Mirenek 50 urte ditu eta amarekin bizi zen. Ama hil da. Horregatik, ahizpak esan dio etxean laguntzeko pertsona bat bilatzeko.

Mirenentzat independente izatea oso garrantzitsua da. Kanpoko pertsona etxera eta bere bizitzara sartzeak kezkatzen du.

Mirenek laguntza behar du dirua kudeatzeko eta eguneroko errutina antolatzeko.





Juanek 68 urte ditu eta emaztearekin bizi zen.

Duela gutxi, iktusa izan zuen eta sostengu asko behar ditu osasuna zaintzeko. Iktusaren ondoren, ezin du hitz egin.

Juanek egoitza batean plaza bat eskatu du eta erantzunaren zain dago.

Juanentzat oso garrantzitsua da familiarekin eta lagunekin duen harremana. Ingurunetik eta ezagutzen dituen pertsonengandik urruntzeak kezkatzen du.



# Dokumentua bete baino lehen kontuan hartzeko gauzak

## “Zuk jakitea nahi dut ...” dokumentuari dagokionez:

- Dokumentua idatzia uzteak **lagundu diezaguke** erabaki informatuak hartzen eta gure zainketen kontrola hartzen orain eta etorkizunean.
- **Dokumentua bi modutan idatz dezakegu:**
  - Bakarrik.
  - Norbaiten laguntzarekin, izan daiteke profesional batekin edo gure inguruko pertsona batekin.
- **Lasaitasuna emango digu** jakiteak neurri egokiak hartu ditugula ziurtatzeko gure nahiak ezagutzen direla eta errespetatuak izan daitezkeela.

## Etorkizunari buruz hitz egitea:

- Pertsona batzuentzat erraza da etorkizunari buruz hitz egitea eta nahiak ezagutaraztea beste pertsonen sostengua behar dutenerako.
- Aldiz, beste pertsonentzako zaila da etorkizunari buruz hitz egitea, ezagutzen ez dutenaren beldur direlako edo sentimenduak eta emozioak onartzea kostatzen zaielako.

## Gai honi buruz senideekin, lagunekin eta profesionalekin hitz egitea:

- Familiarekin eta lagunekin gai honi buruz hitz egitea **zaila izan daiteke**, honako hauek kezkatzen gaituztelako:
  - haiek gogaitzea edo urduritzea.
  - haien sostengua ez jasotzea.
  - nahi duguna ez ulertzea.
  - gure nahiekin ados ez egotea.
- Senideekin, lagunekin edo profesionalekin dokumentu hau betetzeak eta partekatzeak lagunduko die gure erabakien **parte izaten** eta gure nahiak **ulertzen**.
- Gure senideak, lagunak eta profesionalak **ziur egongo dira ondo dakitela** zer nahi dugun erabakiak hartzeko unea iristen denean. Horrek gaizki-ulerturik edo eztabaidarik ez egotea eragingo du.



**GOGORATU** dokumentua betetzeko modu asko daudela eta denak ondo daudela.

**Pertsona bakoitza desberdina da.**

# Nola bete dokumentua bakarrik

## Dokumentua bete baino lehen:

Lehenik eta behin, lagun diezaguke zer nahi dugun eta zer idatziko dugun pentsatzeak, zer den garrantzitsua gu zainduko gaituen pertsonak jakitea. Gure eguneroko kontuak izan daitezke.

Adibidez, jateko gustatzen zaiguna, jantzi nahi genukeen arropa, zaintzeko moduari eragiten dion edozein balio edo sinesmen...



## Dokumentua betetzea:

- **Lasai** zaudenean eta **denbora duzunean** egin.
- **Leku eroso** bat aukeratu egiteko.
- **Hainbat saiotan** bete. Dokumentu hau betetzea zaila izan daiteke eta nekatuta senti gaitzke gai sentikorrei buruz delako.
- **Ez da beharrezkoa** dokumentuaren **atal guztiak betetzea**. Baliteke aipatu nahi ez dituzun gaiak egotea.
- Garrantzitsuak diren gaiak egon daitezke eta dokumentuan agertzen ez direnak. Kasu horretan, **erantsi gai horiek**.

- Dokumentu hau **hainbat modutan** osa daiteke:
  - idatzia
  - audio batean grabatuta
  - bideo batean grabatuta.

Gainera, behar dugun bezala **egokituko** dugu, idazten duen pertsonak berak baliozkotu ahal izateko, partekatu baino lehen.



### **KONTUAN HARTU:**

Hasieran zaila izan daiteke, baina errazagoa izango da aurrera egin ahala.

Hasteko, ausartak izateak lagunduko digu. Egiati izateak eta lasaitasuna eta erabakitzeke indarra izateak asko lagunduko digu dokumentua betetzean.

### **Dokumentua bete ondoren:**


- Familiari eta lagunei **jakinarazi** diezaiekegu dokumentu bat bete dugula gure nahiekin eta beharrekin eta non gorde dugun erabili behar denerako.
- Konfiantzazko pertsonari ere **eman** diezaiokegu gorde dezan.
- Beste leku batean ere **gorde** daiteke, inorekin partekatu gabe, unea iristen denean erraz aurkitzeko toki batean.



# Nola bete dokumentua laguntzarekin

## Laguntzaileak behar du:

- **Pertsona ezagutu eta ulertu**  
pertsonak adierazi nahi duena hitz egitean edo komunikatzeko beste modu batzuekin.
- **Gai izan:**
  - pertsona entzuteko.
  - pertsonarekin ikasteko.
  - pertsonaren balioak eta lehentasunak norberaren balioetatik bereizteko.
- **Ez oztopatu eta ez manipulatu**  
pertsonak adierazi duena eta dokumentuan jaso nahi duena.
- Pertsonarentzat ona dena berak uste duenaren desberdina izan daitekeela **onartu**.  
Eta ulertu gatazkak egon daitezkeela bere balioen eta pertsonaren balioen arteko talkaren ondorioz.
- Pertsonari sostengua eman diezaioketen **zerbitzuek izan ditzaketen mugetan ez pentsatzea**  
pertsonak nahiak adierazten dituen bitartean.
- Pertsonak **nahiak alda ditzakeela** onartzea  
esperientzia berriak eta premia berriak dituen heinean.  
Nahiak aldatzen direnean, **sostenguak ere aldatu egingo dira**.



# Non aurki dezakezu informazio gehiago

Web-orri hauetan informazio gehiago aurki dezakezu gai honi buruz:

- **Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD):**

<https://www.euskadi.eus/informazioa/voluntades-anticipadas/aurretiazko-borondateak-ab/web01-a2inform/eu/>

Mediku taldearentzat idatzitako dokumentua da.

Dokumentuan, pertsonak idatzita uzten ditu etorkizunean jarraitu beharreko jarraibideak, bizitzaren unereren batean ezin badu borondatea bere kabuz adierazi.

Dokumentua alda eta ezeztatu daiteke edozein unetan pertsonak erabakiak hartzeko gaitasuna duen bitartean. Horrela, pertsonaren erabakiak lehenetsiko dira dokumentu horretan jasotakoaren gainetik.

- **Pentsatu, hausnartu:**

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntades\\_anticipadas/eu\\_def/adjuntos/Reflexione-reflexione-va-eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/voluntades_anticipadas/eu_def/adjuntos/Reflexione-reflexione-va-eu.pdf)

Pazienteen eta erabiltzaileen balioei eta nahiei buruz hitz egiten du.



## Pentsatu, hausnartu...

Zure balio eta lehentasunei buruz.  
Etorkizunean nolako osasuna izango  
duzula uste duzu?  
Zer-nolako zainketak jaso nahiko  
zenituzke?

**Arretaren Plangintza Partekatua** lagungarria da paziente eta erabiltzaileen balioak eta lehentasunak zein diren jakiteko eta errespetatzeko, baldin eta ez badira gai zer nahi duten adierazteko.  
Hitz egin horri buruz zure senideekin edo maite dituzunekin. Hitz egin zure medikuarekin eta erizainarekin: prozesuaren berri emango dizute, eta, egoki baderitzozu, **Aurretiazko Borondateen Agiria** idazten eta erregistratzen lagunduko dizute.



AURRETIAZKO BORONDATEAK

- Osasun mentalarri buruzko erabakien plangintza aurreratua.  
Andaluziako Juntaren laguntzeko gida.

[https://www.sspa.juntadeandalucia.es/servicioandaluzdesalud/sites/default/files/sincfiles/wsas-media-pdf\\_publicacion/2021/Guia%20PAD%20SM\\_2020\\_0.pdf](https://www.sspa.juntadeandalucia.es/servicioandaluzdesalud/sites/default/files/sincfiles/wsas-media-pdf_publicacion/2021/Guia%20PAD%20SM_2020_0.pdf)

Gure erabakiak gure kabuz hartu ezin ditugun unea iritsi baino lehen planifikatzeko gida bat da hau. Profesionalentzat eta erabiltzaileentzat da.

Andaluziako Juntako Osasun Mentaleko zerbitzuek egin dute.







# Zuk jakitea nahi dut...

## Dokumentuaren eredia

Hemen dokumentuaren eredu bat proposatzen dugu.  
Zure datuekin bete behar duzu  
eta dokumentua partekatuko duzun pertsonen datuekin.

Besteek kontuan hartzea nahi dituzun  
nahiak, beharrak eta gauzak idazteko  
atalak ere aurkituko dituzu.


**Nik nahi dut dokumentu honetan jasotzen ditudan lehentasunak egoera guzti hauetan kontuan hartzea:**

- Nik adierazi ezin ditudanean.
- Laguntzen didatenek adierazten dudana ulertzen ez dutenean.
- Erabaki batzuk hartzeko gaitasun nahikoa ez dudanean.

**Nire izen-abizenak hauek dira:**

**Nire NAN zenbakia hau da:**

**Dokumentu hau pertsona honi ematen diot gorde eta goian deskribatzen diren egoeretan erabil dezan:**



**Pertsonaren izena eta bi abizenak hauek dira:**

**NAN zenbaki hau du:**

**Pertsona honi ere eskatzen diot pertsona hauekin dokumentua parteka dezala:**


**Eta bakarrik pertsona hauek ezagutu dezatela dokumentua:**

**Nahi hauek kontuan hartzea  
gustatuko litzaidakeen egoerak hauek dira:**

- Hemendik aurrera,  
nire egungo egoeran jarraitzea.
- Orain egunerokoaz gozatzen dut  
nire etxean, nire auzoan.  
Eta etxean laguntza jasotzen hasiko naiz.
- Eguneko zentro batera joango naiz.
- Orain nire etxean bizi naiz.  
Eta egoitza batera joango naiz bizitzera.



**Nire bizitza ona izan dadin,  
sostengatzen nauten pertsonak honako hau jakin behar dute:**



**Maite eta estimatzen ditudan pertsonekin gustatzen zait:**

**Nire egunerokoan gustatzen zait honako hauek egitea:**

**Bereziki gogoko ditut objektu pertsonal hauek:**

**Niretzat egun on bat honelakoa da:**



**Niretzat egun txar bat honelakoa da:**

**Nire ametsak honako hauek dira:**

**Niretzat bizitzan garrantzitsuena hau da:**

**Seguru sentitzen naiz  
errespetuz eta adeitasunez tratatzen nautenean**

**Hitz maitekorrak esatea:**

- Gustatzen zait.
- EZ zait gustatzen.

**Musukatzea, besarkatzea, laztantzea:**

- Gustatzen zait.
- EZ zait gustatzen.



**Gustatzen bazait, era honetara egitea gustatzen zait:**

**Gustatzen zait niri honela deitzea:**

**EZ zait gustatzen niri honela deitzea edo hitz egitea:**

**Seguru sentitzen naiz nire eskubideak errespetatzen dituztenean eta tratu txarrik jasotzen EZ dudanean**

**Gustatzen zait errespetuz eta niri era honetara hitz egitea. Batez ere, zerbaiti "EZ" esan, zuzenketa bat egin, zerbaitetan parte hartzerantz animatu behar nautenean:**



**Behar dudan laguntza jaso nahi dut,  
behar dudan moduan.  
Niretzat, garrantzitsua da hauek kontuan hartzea:**



**Jakin nahi dut laguntza nori eskatu.  
Batez ere, ezagutzen ez nauten profesionalen  
sostengua izango dudanean:**

**Eskubideak modu argian lantzea  
eta pertsonaren bizitzan bermatzeko  
konpromisoak sortzea nahi dut. Hau proposatzen dut:**

Seguru sentitzen naiz  
eguneroko arauak nire beharretara  
egokitu daitezkeenean.

Ordu honetan altxatzea gustatzen zait:

Ordu honetan oheratzea gustatzen zait:




Dutxa nahiago dut:

- Goizez eman,
- Arratsaldean eman,

Jateko orduan, izugarri gustatzen zait:

Jateko orduan, EZ zait batere gustatzen:





**Niretzat garrantzitsua da nire janzkera errespetatzea:**

**Niretzat garrantzitsua da nire irudiaren zainketarako (makillajea, orrazkera, manikura, pedikura, bizarra moztea eta besteak):**



**Seguru sentitzen naiz  
gogaitzen didan hori kontuan hartzen denean**

**Asko gogaitzen naute  
(zaratek, argiek, lekuek, jende asko egoteak...):**



**Beldurra ematen dit:**

Seguru sentitzen naiz nigan eragina duenaren informazio guztia jasotzen dudanean eta ulertzeko modukoa denean.

**Niretzat, informazioa jasotzeko modurik onena da:**

- Ahoz.
- Idatziz.
- Irakurketa Errazean.
- Irudien bidez.
- 



sistema erabiliz.



**Informazio hau modu pribatuan jaso nahi dut, honela:**


**Batez ere, oso garrantzitsua da niretzat honi buruz informazioa jasotzea:**

- Egunean zehar gertatuko dena.
- Antolamendu aldaketak.  
Adibidez, jarduera baten eguna aldatzea...
- Nire osasuna.
- Nire bizitzan garrantzitsuak diren pertsonak.

**Kezkatuko nauen berri bat jaso behar badut,  
niretzat garrantzitsua da kontuan hartzea  
noiz kontaktuko didaten,  
nola egingo duten, non...:**

**Seguru sentitzen naiz nire egunerokoan  
nire pribatasuna errespetatzen denean**

**Gauza hauek giltzapean gorde nahi ditut:**



**Hauetarako baimena eskatzea nahi dut:**



## Ahalik eta osasun onena izateko...



**Ohitura osasungarriak izan nahi ditut.  
Nire osasunerako onak diren gauza hauek egin nahi ditut:**

**Nire osasun fisikoaz gain,  
beste gai batzuk kontuan hartzea nahi dut:**

**Emozionalki gaizki sentitzen banaiz,  
EZ dut nahi dieta bat edo jarraibide batzuk  
zorrotz betearaztea  
(adibidez ibilaraztea, kostatzen bazait):**

**Baina hauek dira salbuespen batzuk:**

**Osasunaz nola nagoen azaltzea gustatzen zait:**



**Gaixotasun bat badut,  
niri azaltzea nahi dut:**

- Oinarrizkoa.
- Ahalik eta gehien.

**Nire osasunari buruzko erabakietan  
parte hartu nahi dut, ahal dudan neurrian.**

**Nire osasunari buruzko erabakiak  
pertsona honek hartzea nahi dut:**

- Osasun gaiek bereziki kezkatzen naute.  
Gustatuko litzaidake niri azaltzea  
nola informa naitekeen eta nola adierazi nahi dudana:**

- Aurretiazko borondateen dokumentu bat  
edo antzeko beste dokumentu bat egin dut.**

Noiz:

Non erregistratu da dokumentu hori:

### Nire harremanak

- Telefonoz edo bideo-deiaz hitz egitea gustatzen zait  
pertsona hauekin:**



Zenbatean behin:

**Gozatzen dut pertsona hauek bisitatzen edo haiekin egoten:**

Zenbatean behin:

**Pertsona batekin konfiantzazko harremana badut pertsona horrekin denbora eta espazioa partekatzeko aukera ematea nahi dut:**

**Pertsona honekin dudan bikote-harremana errespetatzea nahi dut:**

**Pertsona hauen bisitak on egiten dit:**



**EZ zait gustatzen bisitak jasotzea baldin eta:**

**Gozatzen dut jende berria ezagutzen:**

**Nahi dut nire gauza pribatuak,  
hala nola niri buruzko informazioa:**

Hautentzat bakarrik eskuragarri izatea:

EZ izatea eskuragarri:



**Nire herrian edo auzoan  
parte hartzea gustatzen zait horrelakoetan**  
(udal, parroquia, kirol, boluntarioria,  
arte edo halako taldeen ekintzetan):






## Nire hautaketak

**Gustatuko litzaidake hemen bizitzea:**

**Gustatuko litzaidake:**

- Banakako gela izatea.
- Pertsona honekin gela partekatzea:




**Pertsona honekin bizi nahi dut:**

**Gustatzen zaizkidan gauzak kontuan hartuta hautatzen dut egiten dudana:**

**Jarduera hauek gustatzen zaizkit:**

- garapenerako eta ikasketarako**  
(adibidez, kirola, irakurketa,  
hizkuntz berri bat ikastea...).
- artistikoak.**
- solidarioak edo parte hartzekoak**  
(adibidez, gure gauzak edo dirua ematea,  
beste pertsona batzuei edo animaliei laguntzea...).
- nire auzo edo herrikoak.**




- EZ dut nahi interesatzen ez zaizkidan  
jardueretan parte hartzera behartzea.  
EZETZ esateko aukera izan nahi dut:**

- Nire logela horrela apaintzea gustatzen zait:**

**Hemengo giltzak izan nahi ditut:**

**Nire objektu pertsonalak leku honetan gordetzea eta honela jartzea nahi dut:**

**Aurreztea gustatzen zait:**



**Nire dirua gauza hauetan gastatzea gustatzen zait eta honelako kapritxoren bat onartzea:**

**Nire ohiko ingurunetik irten behar izan banaiz  
eta ez banaiz gustura sentitzen,  
nire ingurunera itzultzea erraztea gustatuko litzaidake:**

### Arreta nire bizitzaren amaieran

**Arreta nire bizitzaren amaieran  
jaso nahi dut:**

- Etxean.
- Orain bizi naizen zentroan.
- Ospitalean.

**Nire organoak:**

- Eman nahi ditut.** Badakit organoak ematen baditut,  
ospitalean jasoko dudala nire bizitzaren amaierako arreta.
- EZ ditut eman nahi.**

### Heriotza-poliza:

- Badut.
- EZ dut.

Enpresa edo erakunde honekin:

Hemen gordeta dago:

### Beilatokian hilkutxa egotea:

- Nahi dut.
- EZ dut nahi.



### Beilatokian:

- Hilkutxa irekita egotea nahi dut.
- Ez dut hilkutxa irekita egotea nahi.

### Beilatokian:

- Arropa hauekin janztea nahi dut:
- EZ dut arropa hauekin janztea nahi:

### Lurperatzea:

- Nahi dut.
- EZ dut nahi.

Hemen:

Pertsona hauekin:

### Errausteari dagokionez:

- Erraustea nahi dut eta nire errautsak ondorengo lekuan uztea edo zabaltzea:



- EZ dut erraustea nahi.

**Pertsona hauei abisatzea nahi dut:**

**Eskela:**


- EZ dut nahi eskela jartzea.
- Eskela jartzea nahi dut.

**Hemen:**

**Datu hauek aipatzea nahi dut (nire adina, senideak, lagunak):**

**Eta hau esatea nahi dut:**

- Argazki honekin:



- Argazkirik gabe.

**Hiletari dagokionez:**

- EZ dut hileta ospatzea nahi.
- Hileta ospatzea nahi dut hemen:



- Nahi dut hiletan hau abestea:
- EZ dut hau abestea nahi:

**Modu honetan agurtzea nahi dut:**

**Nire senideek eta lagunek nitaz honela gogoratzea nahi dut:**





**Nire senideei eta lagunei hau esan nahi diet:**

**Gainera, hau esan nahi dut**

Pertsona hau nire ordezkaria izango da

Pertsonaren izena eta abizenak dira:

Dokumentu hau bete dut

Lekua:

Data:

Nire sinadura:



Oharrak:



Gizarte Esku-hartzeko Etika Batzordea  
Comité de Ética en Intervención Social



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**